

MESFIDATU HITZEZ

JON
ARRETXE



erein

MESFIDATU HITZEZ

24

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2019ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-496-8

L. G.: SS-1150/2019

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

JON ARRETXE

MESFIDATU
HITZEZ

erein

I
LABIRINTOTIK



Milaka lagun daude sute erraldoiari begira, hipnotizaturik bezala, ikusten dutena sinetsi ezinik. Sugar bi-ziak Notre Dameko dorre bikien atzetik ateratzen dira zerurantz, eta Sena ibaiaren bazterretan pilatutako turistek argazkiak nahiz selfiak egiten dituzte, katedrala kiskaltzen ari den sutea atentatu jihadista baten ondorioa izan ote den komentatzen duten bitartean. Badirudi ezetz, bestelako arrazoiren batek eragin duela zoritxarra, baina guri hori dena bost axola. Guri, Yarelizi eta bioi, zoritxarrak zoriona ekarri digu eta jakin dugu turista-pilaketa itzelak eskaini digun aukera aprobetxatzen. Emakumea nire aurretik doa oinez, jendetzaren artetik pasatzeko zirrikituak behartuz, «barkatu!» dioela behin eta berriz, gaixo despistatuen poltsa zein sakeletatik karterak atera eta atera ari dela

bere atzamar trebeez baliatuz. Eskuratu ahala niri pasatzen dizkit diru-zorroak ezkutuan, eta nik hauei billeteak atera eta gainerakoa lurrera botatzen dut.

Zeregin erraza da guretzat, inork ez digu erreparatzen, inork ez du kopeta jaisten, denen begiradek jarraitzen dute zeruraino ailegatu nahi bide dutenugarrei atxikita. Diru-bilketa bikaina izaten ari da, poltsiko gehienak billetez gainezka dauzkat, errekor guztiak hautsi ditugu jada, baina ezin da honelako abagune bat galdu eta hor jarraitzen dugu jo eta ke... harik eta gizon baten ingelesezko kexua aditu den arte: «Nire kartera!!!».

Kito, amaitu da lana gaurkoz, zereginari utzi eta patxadaz urrundu gara ibai bazterretik, inolako eragozpenik gabe. Beste tokiren baten agian bai, baina Parisen ez du susmo txarrik eragiten gizakote beltz batek eta mulata gazte batek osatutako bikoteak, batez ere gurea bezalako itxura errespetagarria badute, nabarmena baita ile-apaindegian emandako orduen emaitza, eta markako arropa garestiez jantzita joateak gosekila aristokrata bihurtu baitezake.

Saint-Micheleko metroaren sarrerara ailegatu eta Yarelizek besotik heldu dit eskailerak jaisteko, zein irristatu bere zapata dotoreen takoiien erruz. Hauen larru beltzak bezain distiratsua du begitartea, nik legetxe. Metroko bagoi zaharkitu eta kosmopolitan

jarlekua topatu eta ia hitz egin gabe itzuli gara gure azken hilabetetako bizilekurantz, Barbes-La Goutte d'Or auzorantz.

* * *

Antzina Afrikatik alde egin nuenetik inoiz baino erosoago sentitu naiz aspaldi honetan, non eta Paris arrazaniztunean. Bilboko San Frantzisko auzoan emandako urteetan bolada onen batzuk egon ziren, gehienbat han topatutako egiazko adiskideen sostenguari esker, baina ez zuten gehiegi iraun. Bolada txarrak, ordea, askoz gehiago eta askoz luzeagoak izan ziren. Denboraren poderioz, giroa gaiztotuz joan zitzaidan, hartutako erabaki oker batzuek kakaztu egin ninduten leporaino, poliziaren presio eta txantajeak jasanezinak bilakatu zitzaizkidan eta azkenean handik ihes egin beste irtenbiderik ez nuen izan. Nafar Pirinioetan bilatu nuen bakea, baina nire patu beltzak haraino jarraitu zidan, hautatu nuen herri txikia infernu handi suertatu zitzaidan eta handik ere ospa egin behar izan nuen.

Nafarroako egonalditik, behintzat, zerbait ona atera nuen, zerbait bikaina: Yareliz bera, lantoki zuen putetxe malapartatua pikutara bidali eta ihesaldian lagundu zidan karibetar gaztea. Orain bikote bitxia osatzen dugu, erdi bana ordaintzen ditugu Barbesen

alokaturik daukagun etxebizitzaren gastuak, baina ez dago sentimenduzko konpromisorik gure artean, baikoitzak bere gela dauka eta lantzean behin baino ez dugu ohea partekatzen. Denbora gehienez nor bere aldetik ibiltzen da, berak herrikideak aurkitu ditu Parisen eta gustura egoten da haiekin, antza. Nik ere Mendebaldeko afrikarrak ugari topatu ditut; hala ere, ez dut denbora gehiegi pasatzen haiekin, nahiago dut neure aisiara ibili.

Yarelizek eta biok gauza baterako baino ez ditugu plan serioak partekatzen: gure ongizate-maila oso gora jaso duten zereginetarako, hau da, gure gaizkile-izaera berriari dagozkion lapurretak antolatzeko. Toki eta une egokietan karterak lekuz aldatzea dugu diru-iturririk ohikoena, baina ekintza sofistikatuagoak ere gauzatzeko ditugu noizean behin, hala nola bitxi-dendak, gasolindegia edo dirua soberan izan lezaketen bestelako lokalak hustea.

Jatordu eder batekin ospatu ohi ditugu gure jardunik arrakastatsuenak eta atzo gauean ere horixe egin genuen Notre Dame aldean aurrera eramandako ekintza oparoaren ondoren, etxean bertan afari frantses bikain bat antolatu: paterik onena, haragirik zapoetsuena, xanpainarik garestiena... eta postreko marrubien ondoren, frantsesek daukaten maitale-ospe mailari eusten saiatu ginen izara erosi berrien artean.

Gaur goizean aberatsen antzera esnatu gara, goiz altxatzeko inolako beharrik gabe. Ezer ez egiteaz aspertu naizenean, jaiki, dutxa hartu eta jantzi egin naiz.

–Mandatu bat egitera noa. Gosaria ekartzea nahi duzu? –galdetu diot Yarelizi, zapatak lotzen nituen bitartean.

–Eskerrik asko, Toure, baina oraindik beteta sumatzen dut sabela.

Dejean kalera irten naizenean, eguneroko afrikar azoka-giroarekin egin dut topo. Izan ere, dendek espaloian bertan kokatutako postuetan dute zabaldurik jeneroa, eta jende piloa dabil inguruan, nire azal kolorea daukan jendea. Barbesko alderdi honetan, La Goutte d'Or deritzon eremuan, Chateau Rouge metro geltokiaren inguruan, zuriak ikustea da arraroa, eta Parisko gainerako auzoetan ere guztiz normala da nire gisako jendea topatzea. Horixe da hiri honetan hain eroso sentiarazten nauena, arretarik ez erakartzea, mesfidantza nahiz erruki begiradarik ez sumatzea, lapur potentziala ez izatea. Nahiago dut egiazko lapur ezezaguna izan.

Poissoniers kaletik behera jo eta egin dudan lehenengo gauza lokutorio baten sartu eta Gorom-Goromera dirua bidaltzea izan da. Agorraldi luze baten ondoren berriro bidalketekin hasi naizenetik badirudi emazteari haserrea baretzen joan zaiola. Oraindik

haren mezuak ez dira luzeegiak, oraindik amorraturik dago nik paperak ez lortzeagatik eta, ondorioz, bera eta honezkero nitaz gogoratuko ez diren seme-alabak Europara ekartzeko ezintasunagatik, baina hango bizimodua errazteko baliabideak jasotzeak lagundu du gure harremanak normaltzen, sikeran.

Lokutoriotik irteterakoan gizon nagusi samar batek txarteltxoak ipini dit eskuan:

«Traore maisua, medium jakintsua, era guztietako arazoak konpontzen dituen: dirua, maitasuna, lana, ikasketak...»

Txartela poltsikoan gordetzeaz bat agureari errespetu-keinua egin eta oinez jarraitu dut kalean behe-rantz, zera mamurtuz, ni ere Bilbon horretan aritu nintzela hasieran, igarle-plantak egiten gaixo sinetsberenei euro batzuk ateratzearren. Neure buruari itaundu diot gizon hori benetako mediuma ala ni nintzenaren antzeko iruzurtia ote den. Itxura fidagarria dauka, agian... edozein modutan ere, nire bizitzako boladarririk onenean egonda, haren beharrik ez daukadala otu zait.

Poulet kalearekiko bidegurutzetik igarotzean proposamen lizun bat aditu dute nire belarriek. Gelditu barik begirada iragankorra zuzendu diot ia ahapeka berba egin didan emakume txinatarrari. Haren herrikide-taldetxoak dabil inguruan, ziurrenik nire itxura

txukunak euro batzuk atera ahal dizkidatela pentsarazi die. Ez da seinale txarra.

Hortik gertu gelditu naiz, Oran kalearen hasieran dagoen Le Pardirac ostatu-kafetegiaren terrazan. Uda-berriko egunok epel samarrak suertatzen ari dira eta gustura egoten da kanpoan jesarrita, denbora ematen, jendeari begira besterik gabe. Kafesnea eta croissanta eskatu eta kontenplazio-zereginari lotu natziaio, apur bat goragoko bidegurutzean ezarririk arreta. Hasieratik egin zitzaidan harrigarria honelako auzo afrikar baten ekialde urruneko prostitutak topatzea. Oso era arruntan jantzitako emakumeak dira, euren ogibidea zein den adieraz lezakeen apaingarririk gabeak. Gehienak ez dira gazteegiak, etxeakoandre txintxo eta tradizionalak direla pentsa liteke, eta hor egoteko bakoitzaren arrazoia zein den imajinatzen saiatu naiz. Zalantza sortu zait zelako egoeran dauden, esplotatzen dituzten putakumeak non ezkutatzen diren... Eta, ezinbestean, nire alabari egin ziotenaren gomuta mingotsa etorri zait gogora.



Berrogeitaka urteko bi gizon daude aurrez aurre eserita Pigalleko kebab ñimiño baten terraza txikian, matrailezurrari eragiten. Bata magrebtarra da eta bestea beltza; biak dira gizon garaiak, baina beltza, sudur handi zapalekoa, bestea baino askoz sendoagoa da burutik oinetaraino. Magrebtarrak, gaztexasa itxuraz, gorputz atletikoagoa dauka, lirainagoa, eta gizon galanta dela esan liteke, baldin eta aurpegia orbainez beterik ez balu. Jaten duen bitartean, arreta Boulevard de Clichy-tik igarotzen diren oinezkoengan dauka; oinezkoengan edo sex-shop zenbakaitzetako argi bizietan, ezin jakin. Beltzak, ordea, ez du begirada aldentzen bere eskutzarrez gogor helduta daukan ogitartekotik, eta, ukondoak zabal-zabal eginda, haginkada bakoitza ezpainak asko bananduz egiten du.

–Primerakoa! –bota du belzkoteak, atsedean hartuz haginkatze zereginean–. Turko hauek zuek mairuok baino mila bider hobeak dira kebabak prestatzen.

–Zenbat aldiz esan behar dizut ni ez naizela mairua, afrikar ezjakin hori? Ni zuria naiz, zu ez bezala, ez duzu ikusten?

–Zuria zu? Potroak! Mairuok ez zarete ez beltzak ez zuriak, jende zikina baino.

–Nire familia, behintzat, ez da tribu bantu batekoa. Aita europarra nuen nik.

–Ziur baietz! Ezagutu zenuen?

–Ez.

–Ba amak ziria sartu zizun, zure aita europarra baltz ez zenuen mairu-musu lohi hori izango.

–Eta zuk ezagutu zenuen zure amarekin gurutzatu zen mandoa? Asto-zaldi arrazako zerbaiten kumea izan behar duzu gorputz eta aurpegi amorfo horiekin jaiotzeko.

–Zergatik egiten zait ezaguna elkarrizketa hau?

–Ez zarelako batere originala, beti kontu berberarekin ukitzen dizkidazulako potroak.

Kebabeko barran ura eskatzen ari den atso baten ikara-begiradari erreparatu dio belzkoteak.

–Lasai, andrea –esan dio, irribarre atsegina izan nahi lukeen keinu zatar bat behartuz–. Laudorioak gorabehera adiskide hurkoak gara Martinez eta biok.

Hitz horiek esandakoan garagardo botila hustu eta, kolegarena ere ia agorturik dagoela oharturik, beste bi eskatu dizkio zerbitzariari eskua jasota. Honen buru gainetik ageri den telebistarantz joan zaio begirada, Parisen aspaldian suertatzen ari diren etengabeko istiluei buruzko irudiak daude une horretan: barrikadak, poliziaren kargak, kolore berdinez jantzitako manifestariak...

–Jaka Hori madarikatuak! Ez dira behingoz asper-tuko?

Martinez magrebtarrak ez dio erantzun. Arreta be-rriz ere kebab aurreko bulebarrean dauka ezarrita.

–Aizu, Perrot.

–Zer?

–Erreparatu diozu bikote horri?

Solaskide beltzak begirada jaso eta berehala eran-tzun du:

–Emakumea, erreparatzeko modukoa da behintzat.

–Ez diot horregatik. Ez zaizkizu susmagarriak iru-ditzen?

–Zer dute, ba, arraroa?

–Euren aurpegiak ez datoz bat jantzita dauzkaten arropa garestiekin. Itxura gorabehera, beltz handikote hori ez da ez goi mailako paristarra ez turista yanki aberatsa, ziur nago.

–Zer ba?

–Iragan gordina daukalako marraztuta aurpegieran, ez duzu ikusten? Morroi horrek ez du bizimodu samurra izan, gehiago dirudi pateran ailegatutako etorkina; beharbada, paperik ere ez dauka.

–Ez dakit ba. –Ogitartekoari haginka egin dio Perrot beltzak.

–Eta besotik oratzen dion sudaka gazte hori puta da. Solaskidearen erantzuna ezaxola adierazten duen eztarri-hotsa izan da.

–Puta fina, baina puta –berretsi du magrebtarrak.

–Horri ere ikusten diozu bizitakoa aurpegian marraztuta?

–Bai.

–Eta beltz paterazalea du txuloa, noski.

–Ez, ez dut uste, baina zerbaitek ez du koadratzen.

Biak pentsakor geratu dira, Perrotek azken kebab zatia irentsi eta berriz mintzatu den arte:

–Horren jakin-min handia baduzu, agiriak eskatu ahal dizkiegu, eta galdera batzuk egin –esan du, kontentzimendu handirik gabe–. Baina hobe dugu aitzaikiaren bat bilatzea.

–Ze aitzakia eta ze ostia, poliziak gara eta barrabiletan ipintzen zaigunari eskatu ahal dizkiogu paperak.

–Badakizu zeintzuk diren azken gomendioak identifikazioei dagokienez. Bi horiek, kasualitatez,

frantziar herritar errespetagarriak badira, arazoak sortu ahal dizkigute.

–Horiek ez daukate ezer frantziar herritar errespetagarritik!

–Agian guk biok baino gehiago. Apusturik egin nahi?

Berriz geratu dira ezbaian solaskideak, Pigalleko jendarte arruntean deigarri samarra den bikoteari so. Martinezi iruditu zaio gizonezkoak zeharka so egin diela lipar batez eta pentsa liteke geratzen zaion azken ogitarteko hondarra mahai gainean utzi eta bizkor altxatuko dela harengana joateko, baina une horretan polizia biek ondo ezagutzen duten morroi bat gurutatu da bikote bereziarekin. Gizonezko txiki bat da, ile-sorta hori eta desorraztu batzuk baino ez dituen buru erdi soilduan. Neskaren gorputza aztertu du goitik behera inolako disimulurik gabe, gelditu barik, Perroten ahots ozenak aztoratu duen arte:

–Aizu, Georgi!

Polizia beltzaren esku-keinuak ez du zalantzarako tarterik utzi eta ilehori txikia protesta imintziorik gabe hurreratu da jatunen mahairaino.

–Zer moduz doa eguna? –galdetu dio Perrotek.

–Ezin kexatu, ugazaba.

–Txintxo portatzen ari zara?

–Noski, beti bezala.

–Pozten naiz. –Perrotek Martinezi so egin dio une batez, hau urruntzen ari den bikote bitxiari begira dago oraindik, baina haietaz ahaztea hobetsi duela dirudi-. Zerbait hartu nahi duzu gurekin, Georgi?

–Eskerrik asko, baina ez. Presa apur batekin nabil eta, ardura ez badizue...

–Presaka zu? Noiztik hona? –Polizia beltzak irribarre egin dio-. Itxaron apur baten. –Gizontxoaren poltsikoetarantz seinalatu du begiradaz-. Kasualitatez, badaukazu askari oparo hau biribiltzeko balio ahal digun zerbait?

–Hementxe bertan ez, ugazaba. Badakizu aspaldi honetan ez dudala...

–Badakit ez duzula..., noski –moztu du poliziak, musua seriotuz-. Parisen gero eta zailagoa da ogia irabaztea eta, agian, hobe izango zenuke Moldaviara itzultzea trapitxeoak egitera, ea zer moduz doakizun han.

–Egunen baten itzuli nahi nuke, jakina, baina ez daukat presarik. Itxaron, agian...

Georgik poltsikoak arakatu eta, harridura keinua behartuz, papelina bat atera du ezkutuan, baita Perroti bosteko baten bitartez pasatu ere. Gero bi poliziei so geratu da.

–Joan naiteke? –erantsi du azkenik.

–Beste kontu bat –bota du ordura arte isilik egondako Martinezek-. Hortik igaro den ipurdi sudaka

hori... –Bikote bitxia urrundu den lekurantz seinatu du buruaz.

–Bai, fijatu naiz.

–Ikusita zeneukan lehenago?

–Ez, eta bizkartzain itxurako morroia ere ez dut inondik ezagutzen. Horiek ez dira Pigalle aldean ibiltzen.

–Ziur?

–Ziur, inoiz gezurrik esan dizuet?

–Askotan –erantzun du magrebtarrak.

–Gehiegitan –erantsi, beltzak.

Hirurak geratu dira isilik, eta poliziek interesa galdu dute moldaviarrarekiko. Martinezek azken ogitarteko zatia ahoratu du eta Perrotek garagardoari zurrutada eman eta zutitu egin da.

–Komunera noa postrea hartzera –esan dio kolegari–. Hortxe utziko dut prestatuta zurea ere, ados?

–Ados.

–Eta ni, Morcelli... –protestatu du ilehoriak–. Joan naiteke?

–Nork eman dizu baimena niri horrela deitzeko?

–Pigalle eta Barbesko gaizkile guztiek deitzen dizute horrela.

–Ba zuk ez, nire aurrean, behintzat.

–Sasoian jarraitzen duzu, ezta?

–Bai, zure gisako jendilajearen atzetik korrika egin beharraren erruz.

–Ni ere oso korrikalari ona nintzen. Badakizu Moldaviako fondoko selekzioan egon nintzela?

–Niri bost axola! Zergatik ez zara isiltzen, behingoz?

–Tira, ez haserretu. –Gizontxoak zalantzaz legez begiratu dio poliziari–. Beharbada onena izango da nik alde egitea, ezta? Joan naiteke?

–Zaude. –Martinezek bere aurpegiko orbanik sakonena igurtzi du–. Agian lantxo bat egingo duzu guretzat.

* * *

–Zergatik bizkortu duzu martxa? –itaundu dit Yarelizek.

–Ez zaidalako gustatzen bi morroi horien itxura, ez begiratu.

–Ze morroi?

–Kebab horren terrazan jesarrita daudenak, baina ez begiratu.

Karibetarrak, nire gomendioa gorabehera, so azkarrak egin du esan diodan alderdirantz.

–Mairua eta beltza?

–Horiexek.

–Oso galantak ez dira, baina horretaz aparte...

–Txakur usaina daukate. Ez begiratu berriro, mesedez, eta ez gelditu.

Urduri ipini naiz, poliziak paperak eskatzeko arriskua sumatzen dudan bakoitzean bezala. Yarelizek espainiar nazionalitatea lortu zuen eta ez dauka arazo legalik Frantzian ibiltzeko. Nik ere badaukat pasaportea, nire benetako datuekin, herrialde honetan ibiltzeko turista-bisa zigilatuta daukana, baina faltsua da, kalitate onekoa baina faltsua. Orain arte ez dut aukerarik izan faltsifikatzaile profesionalak egin zidaten lan garestiaren kalitatea probatzeko, eta nahiago dut honela jarraitu.

–Txakurrak horiek? –esan du mulatak ahoskera arduragabeaz–. Gehiago daukate gaizkile itxura, mamuak ikusten dituzu alde guztietatik.

–Ez dira mamuak. Egin kasu, gaitasun berezia daukat txakurrak ezagutzeko, eta, askoz okerragoa dena, baita erakartzeko ere.

–Dena dela... –Areago urduritu nauen azken begiratua eman du Yarelizek kebaberrantz–, egon lasai, ze orain entreteniturik daude goitik behera aztertu nauen gizontxo horrekin. Ez dirudi gure atzetik abiatzeko asmorik daukatenik.

Lagunak arrazoi duela jabetu arren, ia arrastaka eramantzen dut aurrerantz, besotik oratuta, Boulevard de Clichyko sex-shop, sexu-liburu denda, sexu-museo, sexu-disko eta sexu-denadelako guztien artetik Blanche plazara ailegatu garen arte. Hor gelditu eta lasaiago

hartu dut arnasa, eta neure burua konbentzitzen saiatu naiz agian ez neukala kezkatzeko benetako arrazoirik. Moulin Rouge ikusgarria geneukan aurrean eta hari begira geratu gara, turista argazkizale ugarien artean.

–Oraindik uste duzu –galdetu diot Yarelizi, haren soa errotaren lau hegal argitsuei atxikita eta haren irudimena batek-daki-non galduta zeudela oharturik– ideia ona dela hor paloa ematen saiatzea?

–Zergatik ez?

Batzuetan beldurra ematen dit nire adiskide kari-betarrak. Lantzean behin apeta arriskutsuak izaten ditu, niri ezinezkoak iruditzen zaizkidan lekuetan lapurtzeko plan handi-mandiak eta horrelakoak. Orain arte haren ideia txoroak gogotik uxatzea lortu dut, baina Moulin Rougek sortzen dion xarma ez dirudi erraz pasatuko zaionik. Behin, ekintza arrakastatsu bat ospatzearren, bertan afaldu genuen, baita musika eta dantza-ikuskizunaz gozatu ere, Yareliz liluratu egin zen joritasun-giroaz, buruan sartu zitzaion egunen baten kutxa arintzen lagundu behar geniola eta asmo txoro horrekin jarraitzen du tinko.

–Ez da lartxo izango guretzat? –ahalegindu naiz, fede handirik gabe.

–Zergatik?

Hamaika arrazoi bururatzen zaizkit planaren zentzugabekeria arrazoitzeko, baina ez dut aukerarik izan

hauek denak zerrendatzen hasteko, berak jarraitu baitu berbaz, erabat konbentziturik:

–Ehun eurotik gora balio du sarrerak, eta ehunka lagun bertaraten dira egunero, hara zelako ilara dagoen oraintxe bertan. Horrez gain, barruan xanpaina litroka kontsumitzen da, dirua parra-parra xahutzen da eta kutzak gainezka amaitu behar du gauero. Niri plan bikaina iruditzen zait egunen baten hor eskua sartzea.

Ilara luzeko jende dotoreari erreparatu diot. Agian egunen baten Moulin Rouge putetxe merkea izango zen, Bilboko San Frantziskon dagoen izen bereko kobazuloaren antzera, baina orain bistan da goi mailako bezeroen biltoki bihurturik dagoela, sartzeko zain daudenen traje nahiz soinekoak ikusi besterik ez dago.

–Horrez gain –berretsi du Yarelizek–, ondo hornitutako kartera mordoa dago jendilaje horren sakeletan, eta, bide batez, baten batzuk husten saiatu gintezke.

«Noski», pentsatu dut, «eta alde guztietatik egongo diren kamerek ez lukete ezer grabatuko, eta nonahi ageri diren segurategi atea irekiko lizkigukete erreberentzia bat eginez alde egiterakoan. Eta, orain bezala, ia beti atean egoten den polizia-autokoak siesta egiten egongo lirategi gure zeregina amaitu eta arrapaladan irteterakoan...».

Besterik ezean, pazientziaz itxaron dut Yareliz bere liluralditik bizkortu arte. Kostata gertatu da, halako baten berriro niri so egin eta zizpuru bat atera zaio.

–Planen bat bururatuko zaigu, ezta? –bota dit, bere irribarre kilikagarriaz.

–Bai, ziur –erantzun diot.

–Hobe da bigarren txandaren ondoren egitea, diru kopuru bikoitza egongo da eta.

–Ados. Beste ezer ikusi nahi duzu hemen?

–Ez, gaurkoz nahikoa da. –Inguru jendetsua miatu du begiradaz–. Zer egingo dugu orain? Ez gabiltza diruz larri, baina kartera bat edo beste hustu dezakegu, praktika ez galtzeko. Zer deritzozu?

–Ez, hemen hobe ez –erantzun diot–. Nahi baduzu, osteratxo bat egin dezakegu Bihotz Sakratuaren inguruan, toki hori bai egoten dela jendez gainezka beti, eta hemen alboan dago.

–Goazen ba, eta eskuratzen duguna jatetxe dotoreren baten afalduz gastatuko dugu, adibidez... Senan zehar ibiltzen diren barku horietariko baten! Zer iruditzen zaizu?

–Gustatzen zait ideia, goazen.

Boulevard de Clichytik itzuli beharrean, Lepic kaletik gora abiatu gara Sacré Coeur-erantz, eta bidean zera pentsatu dut, inbidia ematen didala Yarelizen baikortasunak. Horretaz kutsatu nahi nuke nik ere, baina

orain bestelako sentiera bat daukat, ezkorra, batik bat kebabeko ustezko txakurrak ikusi ditugunetik. Ezin dut burutik kendu orbanez betetako aurpegi margebtar hori, morroiak zuzendu didan begirada mesfidatia... Nire senak zera esan dit, agian hemendik aurrera gauzak ez direla hain errazak izango guretzat, baina nire sena, egia esan, ez da inoiz oso fidagarria izan. Ez dakit zer ondorio atera. Edonola ere, badaezpada, hobe izango dugu aurrerantzean tentu handiagoz ibiltzea.



Arraroa egiten zait diru-estualdirik gabe bizitzea, supermerkatuetan produktuak gurdiratu aurretik salneurriari ez begiratzea, edonon edozer kontsumitzerakoan aldeztatik prezioa ez galdetzea, pisuko alokairua ordaintzeko inoren errukiaren menpean ez egotea... Ez dakit inoiz ohituko naizen egoera berri honetara, eta hobe gehiegi ez ohitzea, egunen baten patuaren norabidea aldatu eta bolada oparo hau pikutara joanean ere. Dena dela, irauten duen bitartean, afrikarron izaerarekin hain ondo ezkontzen den «momentua bizi» filoso-fiaren arabera jokatzeko erabaki dut.

Gaur berton, esaterako, omenaldia egin nahi izan diot nire zorte onari eta, alkandorarik garestiena jantzita, hasteko, taxi bat hartu eta Garaipen Arkuraino joan naiz, hari begira gosaltzeko terraza pijo baten. Aspertutakoan, zerbitzari ilehoriari irribarre batez

eskupeko polita utzi ondoren, turista-bus horietariko bat hartu dut, ibilbide luzeenekoa, eta Parisko harribitxiak miretsi ditut atzerritar memeloz inguratuta. Haietaz nazkatu naizenean Eiffel Dorrera joan eta jattetxerik garaienean egin dut bazkaria, menuko gauzarik garestienak eskatuta. Gero kafe bat hartu dut Île de la Cité inguruan, Sena ibaiaren bazterrean, Notre Dame-ren errautsak usaintzeko ahaleginez, eta hura dastatu bitartean, bolada berri honetan ezinbestekoa izan zaidan pertsona etorri zait gogora. Izan ere, Pariserako ihesaldian Yarelizekin elkartu ez banintz batek daki zelako bizimodua izango nuen orain, ziurrenik La Goutte d'Or aldean biziko nintzen, orain legez, baina nire maila ez zen inola ere oraingoa izango. Kaltetik ikusten diren milaka beltz arrunt horietariko beste bat izango nintzen, ezingo nuen biziraupenetik harago begiratu, azken baten Bilbon neukanaren antzeko bizimodu etsigarriarekin konformatu beharko nuen.

Zorioneko sentitu naiz patuak karibetarrarekin elkartzeagatik eta bulkada baikor batez altxatu naiz aulkitik, ibiltzeko gogoz. Marais auzoa oinez zeharkatu dut, Haussmann bulebarrera ailegatu arte, eta zuzen jo dut Lafayette galerietara. Han saltzaile ezin faltsua goen azalpenak aditu ditut pazientziaz, onespenekin eginez behin eta berriz buruko keinu apal batez,

eta azkenean ez-dakit-zer harri gorrixkaz egindako lepoko distiratsu bat erosi dut, zilarrezko kate sendoa daukana. Opari gisa bildu eta taxia hartu dut bizi garen tokiraino itzultzeko.

Nahasturik sumatu dut gidaria Grand Hotel Barbès apalaren alboan uzteko eskatu diodanean, baina izan zitzakeen zalantza guztiak atoan uxatu zaizkio billete potolo batekin ordaindu eta bueltak gordetzeko esan diodanean.

Ilusioz sartu naiz gure atari zaharrear, ilusioz igo ditut eskailera-maila kexatiak, ilusioz zabaldu etxeko atea, baina «Yareliz!» esateko nengoenean, zarata batzuek erne jarri naute. Neskaren gelatik zetozen, eta zentzumenak adi hurbildu naiz harantz. Pentsa zitezkeen norbait dena arakatzen ari zela inolako tenturik gabe, altzariak mugitzen ari zirela edo, baina berehala ohartu naiz zarata ohearena zela, ohearen malgukiena, oholena, hankena... Eta ahotsak ere bereiztu ditut, ahots bi, karibetarrarena eta berarekin zegoen gizonarena, hasperen ozenak, eskariak eta erreguak, aipamenak Jainko eta Ama Birjinei, *in crescendo* zihozten aiene kartsuak...

Eskuan neraman paketetxoari begiratu eta poztu egin naiz etxeko sarreran ispilurik ez egoteagatik. Ez-baiko segundo batzuen ondoren nire gelara jo dut, han ere zalantzan egon naiz bazterretara begira eta

sukaldera joatea hobetsi dut. Armairuak irekitzen hasi eta azkenik toki egokia aurkitu dut: apal altuenetik Yarelizek kontsumitzen ez duen kafe-hauts pote handia atera eta hautsen azpian ezkutatu dut idunekoa, hau biltzen zuten papera eta kutxatxoa zakarrontzira bota ondoren. Karibetarraren gelako txalaparta bareturik zegoen jada, plazerezko hasperen ozen batzuen ondoren. Orduan, di-da baten alkandora erantsi eta kamiseta arrunt bat jantzi ondoren, kaleko aterantz itzuli naiz, baina maratilaria heltzeko nengoela bat-batean ireki da Yarelizen gelako atea eta neska karrajura irten da, biluzik, izerditan.

–Kontxo, Toure! –bota du, irribarrez–. Ez zaitut barruntatu. Bazoaz, ala?

–Bai.

–Presaka zabilta?

–Ez.

–Orduan zaude, mesedez, ze gauza inportante bat daukat esateko.

* * *

–Hau Nelson da, Toure, Haitiko lagun bat –esan dit Yarelizek, eta bostekoa eman diot egongelako mahaiaren bestaldeko sofatik zutitu den hogeita hamataka urteko morroiari. Altuera eskasekoa da, zezen lepokoa, beso gihartsukoa, hazpegi zaildu eta

zakarreakoa. Haren musu mulatoan ez dut inolako errudun sentimendurik edo estutasun izpirik sumatu, gehienez ere mesfidantza kutsuren bat, izu puntutxoren bat, agian, aurrez aurre zutik ikusi nauenean. Ni aurpegiera axolagabeari eusten saiatu naiz.

«Urte askotarako» edo antzeko zerbait esan diogu elkarri.

–Zuk badakizu –jarraitu du nire pisukideak– lagun koadrila egin dudala Parisen, Karibe aldeko jende jatorrena, eta askotan elkartzen naizela haiekin. Sarri gonbidatu zaitut gurekin etortzen, baina ez duzu inoiz onartu.

–Arrazoi duzu, eta eskertzen dizut. Agian egunen baten... –desenkusatu naiz.

–Tira, ez zaitut entretenitu nahi gure istorioekin eta harira etorriko naiz. Kontua da lehen Nelson laguntza eske etorri zaidala. –Segundo bateko pausa baino ez du egin Yarelizek, baina oso deserosoa suertatu da hirurontzat–. Bere arreba, Zoila –jarraitu du–, gure lagun-taldekoa da, bilera eta festa gehienetan egoten da, baina azken egunotan ez da azaldu eta inork ez omen daki non egon litekeen. Beharbada onena Nelsonek berak azaltzea da.

–Yarelizek ondo esan du –bota du haitiarrak, ezta-
rria garbitu ondoren–. Kontua oso ximplea da: egun batzuk daramatzagu nire arrebaren berririk gabe, eta

ez du inoiz egin horrelakorik. Zelularra ere deskonektaturik dauka, pentsa, hori ez da batere normala.

–Ezer baino lehen... –Zalantza izan dut galdera zelan planteatu–, zergatik etorri zara gure etxera laguntza eske?

–Yarelizek askotan hitz egin digulako zutaz, oso ondo, gainera. Morroi legala izateaz gainera, ikertzaile trebea ere ba omen zara.

Etsipenezko begiratu zuzendu diot Yarelizi, baina neskaren irribarre zintzoak inolako errietarik egitea eragotzi dit.

–Ez dut beste inor ezagutzen nire arrebaren desagerpena ikertzeaz arduratu litekeena –erantsi du Nelsonek–, eta poliziara, oraingoz behintzat, nahiago dut ez jo.

Tipoa pikutara bidaltzea pasatu zait burutik lehenik, mandatua ukatzeko aitzakiaren bat bilatzea gero, baina ez zait ezer konbentzigarrikerik bururatu.

–Zertan egiten du lan zure arrebak? –itaundu dut azkenik, zizpuru baten ondoren.

–Ez dauka lanbide finkorik. Gure umeak zaintzen ditu aldika, beste lagun batzuenak ere bai... baina, gehienbat, nik laguntzen diot aurrera irteten.

–Zu zertan ibiltzen zara, ba?

–Bueno –Yarelizi so egin dio une batez, eta honen onespren keinuarekin egin du topo–, trapitxeo apur

bat egiten dut, ezer seriorik ez, kopuru txikiak pasatzen ditut, haxixa, maria eta horrelako gauza leunak, badakizu. Nahikoa ateratzen dut nire familiak aurrera jotzeko.

–Zoila ere zuekin bizi da?

–Tira, ez du oso bizimodu finkoa. Badauka gurean non lo egin, baina sarritan hortik zehar ibiltzen da. Batzuetan pixka bat... txoriburua da.

Haitiarraren zehaztapen faltak despistatu egin nau eta Yarelizek argitu ditu kontuak:

–Zoilak kalea egiten du noizean behin, baina bere kabuz, inoren menpean egon barik.

–Nik askotan esan diot horrelako negoziotan ez sartzeko –erantsi du gizonak–, ez dela beharrezkoa, baina... Dirua gustatzen zaio eta... tira, badakizu.

Badakit, noski, nori ez zaio dirua gustatzen? Arnasaldi sakona hartu dut. Beraz, beste behin ere suertatu behar zait prostituzio konturen batez arduratzea, San Frantziskon hainbestetan egin nuen bezala zorte eskas samarraz?

–Non egiten du kalea zure arrebak? –galdetu dut.

–Belleville aldean ibiltzen da, gehienbat. Ezagutzen duzu?

–Entzutez. Badaukazu haren argazkirik?

–Bai, noski.

–Nik ere bai –erantsi du Yarelizek.

Biek atera dituzte sakelakoak, zein baino zein kalitate handiagokoa, eta nebaren antz handirik ez daukan neska baten hainbat argazki erakutsi dizkidate, gehienak nire pisukidearen lagun-talde berriaren baitan egindakoak, festa giroan. Azal zuri samarreko neska bat da, Nelson bera baino askoz gazteagoa dirudiena, hogeitau urte pasatxo baino izango ez dituen; txikia baina liraina, gorritz tindaturiko ile labur leunekoa...

–Ea lehenengo planoren bat aurkitzen duzuen, ahalik eta berriena, jendeari erakusteko –esan diet, eta berehala topatu dugu argazki egokia: Zoila mahai baten atzean eserita dagoen bat, eskua kokotsean, irribarre eginez.

–Hau ondo dago?

–Primeran, bidali nire telefonora eta listo.

Zeregina betetakoan besterik behar dudan galdetu, nik oraingoz ez zaidala beste ezer bururatzen erantzun eta hirurok isilik geratu gara pixka baten. Eta deseroso sentitu naiz berriro.

–Bueno, ni orain banoa –esan dut.

–Ez duzu nahi hirurok elkarrekin afaltzea? –itaundu dit Yarelizek–. Nelson sukaldari ona ere bada eta...

–Mila esker –moztu dut, «ere» horren esangurari buruz zalantzaz eta desagertzeko aitzakiaren baten premiaz–, baina mandatu pare bat egin behar dut. Eta, beharbada, astirik badaukat Bellevillera joango naiz

ostera bat egitera. Zenbat eta lehenago hasi kontu honekin, hobe.

–Nahi duzun legez –bota du nire pisukideak.

–Mila esker, gizona –esan du Nelsonek, eta bostekoak luzatu dit.

«Agian berandu itzuliko naiz gauean» edo antzeko zerbait eransteke tentazioa izan dut, baina, zorionez, esaldiaren zentzugabekeriak sasoiz ohartu naiz eta ahoa berriz ireki gabe egin dut ospa gure etxetik.

* * *

Egia esateko, ez nago lar motibaturik berriro ikerketa-kontuekin hasteko, ez daukat gogorik, ez daukat inolako beharrik... baina ez dut jakin ezetz esaten. Egunen baten espabilitatuko naiz, agian.

La Goutte d'Or-ko pisutik albait arinen desagertzeko gogoia neukan eta egin beharreko mandatuen aitzakia erabili dut, asmatutako aitzakia, noski. Zerbait edateko gogoia sumatu dut, hori bai, eta, ideia hoberik ezean, gure auzotik urrunegi ez dagoen Bellevillera bertara joatea bururatu zait.

Metro-geltoki dozena erdi baino ez dira izan. Belleville izeneko geltokian jaitsi naiz, hain zuzen, lurpeko trenetik eta, zulutik ateratakoan, lehendik ezagutzen ez nuen auzoaren magalean agertu naiz. Txinatar gizonezko mordo bat izan da begiz jo dudana

lehenengo gauza, petril eta baranda batzuen inguruan zeuden berriketan, euren ohiko arropa grisaxka tris-teak jantzita, ohiko seriotasuna musu adieragabeetan.

Haien alboan mini azoka bat zegoen inprobisatuta, saltzaileek lurlean bertan zabaldutako jeneroaz hornitua. Postu oparoenean andre musulman batek dilista-pote bat, haginak garbitzeko eskuila bi, lepoko bat, bi sosten koloretsu eta ume-pijama bat eskaintzen zituen; gizonezko batek bospasei erreminta zituen erakusgarri, beste batek txakur-janari itxurako poto bat eta urdaiazpiko-sobreak... Txiro itxurako gizon biseradun bat hurbildu eta dilista-potea erosi dio andre musulmanari, beste emakume musulman bat ume-pijama aztertzen egon da, beste morroi batek urdaiazpikoaren prezioaz galdetu du...

Mini azokaren alboko horretan «Frexit!» dioten hainbat kartel daude itsatsita. Ez nuen berba hori eza-gutzen, dena «Brexite» zela uste nuen, baina, dirudienez, Frantzian ere badaude Europar Batasuna pikutara bidaltzearen aldekoak. «Berreskura dezagun Frantzian benetako demokrazia», «Frantzia frantziarrontzat» eta horrelako mezuak aldarrikatzen dituzte kartelok. Susmatzen dut horrelako ideiak dituzten politikariak ez direla atzerritarrok gehien maite gaituztenak, eta European hain indartsu ari den eskuin mutur hori nagusituz gero, garai are txarragoak etorriko direla paperbakoontzat.

Baina politika kontuak ez dira orain nire lehentasunetako bat, eta metrotik jaitsi naizen momentuan ez neukan batere gogorik atzerritarren egoeraz nahiz gizarteko bidegabekeriez filosofatzen hasteko, une horretan beste premia askoz oinarrizkoago bat neukan: eztarria lehenbailehen bustitzea. Txinatarren biltokitik ehun bat metrora ikusi dut nire grina ase zezakeen leku bat, «Le Relais» izeneko taberna itxurakoa, eta hara jo dut zuzen eta artez.

Lokalean sartu eta atoan ohartu naiz apustu-tokia dela. Barra aldea erdi hutsik zegoen, baina gizonezko pilo bat ageri zen bazterretan, haietariko gehienak atzerritar jatorrikoak, makinetan dirua sartzen, kiniela antzeko apustu orriak betetzen edo telebistako zaldilasterketei adi. Mahai-aulki batzuk ere badaude lokalean, baina gehienak hutsik zeuden. Haietariko baten eseri naiz eta berehala hurbildu zait hegoamerikar itxurako emakume bat, jarrera ez oso abegikorrean.

–Hor eserita egoteko –leporatu dit– zerbait konsumitu behar da. Bestela, badakizu –atea seinalatu dit buruaz.

–Zein da daukazuen whiskirik onena?

Nire erantzunak ezustean harrapatu du zerbitzaria. Tinko baina adikor begiratu diot, guztiz ezezaguna egin zaidan marka bat aipatu du eta horren kopa bat bi izotz puskarekin ekartzeko eskatu diot.

Hortik gutxira itzuli da, esku batean kopa eta bes-tean kontua. Gauzak mahaian uztearekin batera, prezioa begiratu gabe, berrogeita hamar euroko billete bat luzatu diot, zurrutada bat probatu dut eta, whiskirik garestiena zein ganbileko arrunkeria izan zitekeen bereizteko inolako gaitasunik ez izanik, edozer adieraz lezakeen marmar txiki bat egin dut.

Gero, zeharka begiratu diot zerbitzariari eta nire billetea makina egiaztatzaitetik behin eta berriz pasatzen sumatu dut. Bueltak aurpegiera amultsuagoaz ekarri dizkit, eta hainbat eurotako eskupekoa eman diodanean, irribarre eta guzti egin dit. Gero leihotik begira geratu naiz.

Jean Rostand deritzon plaza dago Le Relais-en alboan eta dozena bat prostituta txinatar ikusi ditut bertan, Bellevilleko eremu asiarrean primeran integraturik daudenak. Edonola ere, hemengo hauek eta Barbès afrikarrekoek antzeko itxura daukate, taldean daude eta euren ogibidea argi adierazi nahi ez bide duten emakumezko arruntak direla pentsa liteke, hor ez baita ia ageri ez minigona deigarririk ez takoi ikusgarririk ez makillaje nabarmenik ez gisa horretako ezer.

Tabernako gizon posturazale arrazaniztunen artean eman dudan denbora luzean inor gutxi hurbildu zaie kaleko neskei eta haietariko bat baino ez da joan bezero batekin. Tarte horretan, beste whisky bi edan

ditut eta beste eskupeko majo pare bat eman diot gero eta jarrera adikorragoa erakutsi didan zerbitzariari.

Ohikoago ditudan garagardoak edo ardoak baino horditze-eragin askoz handiagoa dauka whiskyak, berehala jabetu naiz. Lehenengo koparekin ideia bat marmurtzen hasi naiz: «Beharbada...». Bigarrenarekin, «zergatik ez?» ondorioztatu dut, «ez da ezer galtzen probatzeagatik». Eta hirugarren kopa hustutakoan erabakitsu zutitu naiz, kalera irten eta prostituta txinatarrengana jo dut. Nire sakelakoa poltsikotik atera eta gazte samarra zirudien neska batengana hurbildu naiz, Zoilaren argazkia pantailan, baina ez dit aukerarik eman ezta ezer itauntzeko ere. Beste batekin probatu dut eta honek ere ihes egin dit. Zaharrena zirudien emakumearekin saiatzea erabaki dut, eta honek, sike-ran, pantailara begiratu du une batez. Modu oso hartzean erantzun dit neska hori nor den ideiarik ez daukala, eta urrundu egin zait. Gezurretan ari zela esan dit nire senak, baina normalean nire senak dioenaren kontrakoa izaten da fidagarriena, halandaze...

Prostituta txinatarren harrera ikusita, amore eman behar izan dut. Hala ere, ikertzaile-zereginen hasita nengoela jabeturik, ingurumarian buelta bat ematea erabaki dut. Belleville auzoko Belleville metro-gelto-kitik abiatuturik, Belleville izeneko kale luzean gora jo dut oinez. Lehenengo zatiak harritu egin nau bere

osaeragatik: alde guztietatik jatetxe txinatarrak daude, eta denda txinatarrak, eta jende txinatarra... Edo, agian, txinatarrengandik bereizten ez ditudan vietnamdarrek edo thailandiarrek izan litezke, hauen negozioak ere bai baitaude nonahi.

Dena den, kalean gora joan ahala, asiar nagusitasuna makaldu egiten da pixkanaka eta arraza barietate handiagoa ageri da, munduko edozein bazterretakoa izan litekeen jendez osatua. Denda eta jatetxeak ere horrelakoak dira, leku guztietakok, eta horrek gustura sentiarazi nau.

Hamar bat minutuz ibili ondoren, bidegurutze bateko plaza bitxira ailegatu naiz. Espazio libre hori eraikin pare bat botata sortu dutela pentsa liteke, hainbat hormaren biluztasuna ikusita. *Place Frehel* dio kartel batek, eta eraikin garai eta zahar baten margotuta dagoen mural erraldoiak erakarri du nire arreta: gizon beltz baten marrazkia da, trajedun eta kapeladun gizona, belauniko dagoena lurretik jaso-tako paper bat aztertzen. Muralaren azpian arlote bat dago, kanping-denda eta guzti, zaborrez eta hondakinez inguratuta. Eta harengandik metro batzuetara, pub moduko bat, kultur ekintza mordoa antolatzen omen dituen, kartel ugarien arabera. Honen aurreko terrazan jende gaztea, zuri-zuria, modernoa edo, San Frantziskoko behealdean ugaritzen ari direnen itxura

gogorarazi didana, gentrifikazioaren emaitza, hangoek dioten bezala. Eta jende modernoaren buru gainean beste mural handi bat, arbel antzeko bat, «*Il faut se méfier des mots*» dioena: Mesfidatu hitzez.

Kale kantoian geldirik, Bellevilleko kontrasteez hausnartzen ari nintzenean, izan dut lehenengo aldiz susmoa: tipo hori, pubeko kultur ekitaldien kartelak irakurtzen edo dagoena... niri segika ari ote da?

Oinez jarraitu dut Belleville kalean gora Pyrénées metro geltokira ailegatu arte. Hor gelditu egin naiz, eta biseradun morroi txiki susmagarria ere bai, berrogei bat metro beherago, suertatu zaion erakusleihu hurbilenaren aurrean. Nonbait ikusita ote daukat? Nire susmoa ziurtatzearren, Belleville kalea utzi eta Pyrénées perpendikularretik jo dut, jatetxe afrikar batera ailegatu naizen arte. Honen sarreran ostera ere egin dut geldialdia eta kristalean itsatsita daukan menu-orria aztertzen hasi naiz, itxuraz, benetan ispi-lua aprobetxatu baitut errepidearen beste aldean gelditu den morroia hobeto ikusteko. Aurpegi hori...

Ez zegoen dudarik, niri segika ari zen eta, bat-batean buelta emanda, errepidea bizkor zeharkatzen hasi naiz. Tipoaren erreakzioa berehalakoa izan da: korrika abiatu da. Ni haren atzetik joan naiz, apur bat hurbiltzea lortu dut, agian harrapatzeko gauza izango nintzen esperantza ere izan dut, batik bat

berak oinezko batekin tupust egin, bisera lurrera erori eta hau hartzeko gelditu denean. Baina kabroi horrek atzerantz begiratu du, irribarre maltzurra zuzendu dit eta bizkortu egin du martxa.

Orduan ikusi dut hobeto haren aurpegi zurbila, haren buru erdi soildua, ile-sorta hori batzuk baino ez dauzkana, eta orduantxe jabetu naiz nondik ezagutzen dudana: Pigallen Yarelizekin paseatzen ari nintzela gurekin gurutzatu eta mulataren gorputza inolako disimulurik gabe goitik behera aztertu zuen morroia da, gero kebabeko mairuak eta belzkoteak osatzen zuten bikote susmagarriarekin berriketan gelditu zen berbera.

Ez naiz hari jarraitzeko gauza izan, alde batetik tipoa nor den jabetzeak eragin didan bat-bateko ondoezaren erruz eta, areago, ni baino lasterkari askoz hobea delako. Amore eman behar izan dut, beraz, eta arnasestuka geratu naiz espaloian.

Apur bat errekueratutakoan jattetxe afrikarrera itzultzea erabaki dut eta hemen nago orain, hausnar etsigarrian ondorio logiko bila. Lehenengo eta behin, Flag markako garagardo hotz bat irentsi dut bi tragotan, eta gero, gose handirik sentitu ez arren, *yassa* oilaskoa eskatu dut sabelean zerbait solidoa sartzearren. Zerbitzari senegaldarrak ekarri didan platerkadak egiazko zapore afrikarra dauka, baina nire ahoaz jabeturik dagoen garraztasunak nekez utziko dit jakia dastatzen.